

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI PELOTA

Etxean, Azpeitia aurkari

Herriarteko Txapelketan Azpeitiaren kontra jokatuko dute gaur pelotari hernaniarrek, 19:30etan kiroldegian finalaurrenetako itzulerakoa. Joanekoan 3-0 irabazi zuten azpeitiarrek. ||

■ HERNANI MENDEKOSTE JAIK

Festak gaur hasiko dira Etxeberrin

Auzoko merkatariak botako dute txupinazoa 18:00etan eta ondoren buruhaundiak eta puzgarriak egongo dira haurrentzat. Nagusien danborradak borobilduko du hasiera gaueko 23:00etan.

AUZOKO merkatarien omenez jaien hasierako txupinazoa gaur botako da Etxeberrin, 18:00etan, frontoian. Aurten urteko bigarren jaiak dira Floridako Mendekosteak Hernanin; eta horregatik izaten dira jai estimatuak. Mendekoste jaiak iragartzen dute festak hemen direla, San Joanetarako geroz eta gutxi-

ago geratzen dela, uda bada-torrela...

Gainera aurten atzeratuak datoz Aste Santua ere beranduago izan baitzen. Gogorik ez da falta, beraz.

Gaur hasiko dira jaiak, 18:00etan auzoko merkatarien omenez botako den txupinazoarekin, Etxeberriko pelotalekuan. Segidan, buruhaundiak

aterako dira, eta puzgarriak jarriko dituzte 19:00etan. Helduen danborradak borobilduko du hasiera, gaueko 23:00etan.

Bihar, egun haundia

Egun haundia bihar biziko da auzoan. Goizean goizetik hasiko dira ekitaldiak eta gauera arte ez da egongo etenik. ||

EGITARAU GAUR

- **18:00etan:** Jaien hasierako txupinazoa auzoko merkatarien omenez pelotalekuan.
- **18:30etan:** Buruhaundiak auzoko kaleetatik.
- **19:00etan:** Puzgarriak, haurrentzako parkea.
- **23:00etan:** Nagusien danborrada.

■ HERNANI GARAGARDO AZOKA

Atsegindegi garagardotan murgildu da

Atzo eman zitzaion hasiera errugbi elkartearen azokari eta gaur 22:00etan bi sarrera zozketatuko dira Iribarria eta Urrutikoetxearen arteko banakakoaren eskuzko finala ikusteko Miribillan.

ERRUGBI Elkartek antolatzen duen Garagardo Azoka berriz ere martxan jarri zen atzo Atsegindegin. Igandera bitartean egingo da eta jan edanaz gain, musika ere izango da. Landaren errugbi barnertzaile txapelketa ere antolatu da bihar.

Inaugurazioan Joxe Elozegi zuzendaritzako kideak urteko balorazioa eta datorren denboraldiko erronken berri eman zuen eta elkartearen kideekin batera egin zuen topa. Gaur 18:00etan irekiko da barra eta sukaldea 19:30etan, eta 23:00ak arte eskatu ahal izango da jatekoa. Itxi, berriz, egunero, gaueko 00:00etan.

Boletoak salgai pilota

finalerako zozketan sartzeko Bestetik, boletoak daude salgai Iribarria eta Urrutikoetxearen arteko eskuzko finalerako,



Atzo inauguratu zuten Garagardo Azoka, Atsegindegin, errugbi elkartearen kideak.

bi sarrera zozketatuko direlarik. Zerbaki batekin bi sarrera irabazi daitezke eta zozketa 22:00etan egingo da Atsegindegin. Bertan egotea ezinbestekoa da eta bertan emango da saria. Irabazlea agertuko ez balitz berriz

zozketatuko da boleto sarritua agertu arte.

Bihar eta igandean, bestalde, eguerdiko 12:00etan irekiko dira barrak, eta sukaldea, 13:30etatik 15:30etara eta 19:30etatik 23:00etara. Denboraldi bukaerako bazkaria

igandean, 14:00etan egingo da.

Giro onik ez da faltako azokan, egunero, eta gainera, bihar gaueko 21:30etan hasita, *Bide batez* trikiti taldeak joko du. Bestalde, bihar errugbi barnertzaile txapelketa egingo da Landaren, 15:00etan. ||

■ HERNANI AKELARREA

Akelarrerako, bilera

Biteri kanpoaldean, 19:15etan jarri da gaur hitzordua, Akelarre nagusiarako ideien berri eta argibideak emateko. ||

■ HERNANI ZINEA

'Un asunto de familia', Biterin

Ohiko ordutegietan, gaur 22:30etan, eta astelehenera bitarte *Un asunto de familia* pelikula eskainiko da Biterin. ||

■ EREÑOTZU FESTAK

Musean, San Antonioak hasteko

San Antonioetako Mus Txapelketa gaur antolatu da Ur Mia elkartearen, 22:30etan hasita. Aurtengoa, 34garren edizioa izango da. ||

■ HERNANI PALA

Umeen txapelketak finalak, gaur

Tilosetan umeen txapelketako pala finalak jokatuko dira gaur, 17:00etatik aurrera. Aurretik, 16:00etan, LHlko ikastetxeetako 5. eta 6. mailako nesken topaketa antolatu dute. ||

■ HERNANI SUTU JAIK

Bilera, txosnak antolatzeke

Sutu Hernanik bilera deitu du gaur, 18:00etan Kontrakan-tan. San Joanetako txosnako txandak banatuko dira. ||

■ ASTIGARRAGA SANTIOAK

Kartela bozkatu daiteke gaur arte

Egitarauaren diseinua aukeratzeko kultur etxean erakusketa eta bozkatzeko aukera, gaur arte 17:30etik 20:00etara. ||

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
CEPA Hernani HHI
Helduen hezkuntza
Ekainean MATRIKULA ZABALIK 2019/20 ikasturterako

- DBH-ko TITULUA lortu
- Zure ikasketak jarraitu
- Hizkuntzak: ingelesa, euskara
- Heziketa zikloetarako sarbide frogen preparazioa
- Atzeritarrentzako gaztelera eta euskara

Antziola 62, Hernani 943 33 53 18

BRINTZA
AHOLKULARITZA - CONSULTORIA
Lan-Aholkularitza
Fiskala
Aseguruak Inbertsioak
Zerbitzu Juridikoak
www.brintza.com
URBIETA KALEA 15, HERNANI
Tel: 943 33 12 67 Fax: 943 33 08 92

FUNERARIA VASCONGADA
Zure eskura
24h-ko zerbitzua
943 376 980
Orkolaga, 2-4
943 55 79 01
HERNANI
www.funerariavascongada.com



GAUR Haizea oso zakar ibiliko da: goizean hego-mendebaldetik joko du eta mendebaldetik eguerditik aurrera. Eguraldia nahasia egingo du, euria eta argiguneak ikusiko dira. **Min.13° / Max.20°**



BIHAR Lehen zatian eguzki giroa nagusituko da eta ekialdeko haize suabea ibiliko da. Arratsaldetik aurrera ipar-haizea sartuko da eta baliteke gauean euri pixka bat egitea. **Min.10° / Max.22°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauz:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

ASTIGARRAGA MUSIKA EGUNA

Musika Eguna gaur eta bihar ospatuko da musika eskolako ikasleekin

Kalejirarekin hasiko da ospakizuna gaur, 17:30etan, eta kontzertuak eskainiko dira ondoren Joseba Barandiaran plazan, 18:30etan.

URTERO egiten duen moduan Norberto Almandoz Musika Eskolak ikasturtea bukatzeko Musika Eguna antolatuko du gaur eta bihar. Beraz eguna baino bi musika egun izaten dira Astigarragan.

Gaur, trikitilarien kalejira izango da 17:30etan festari hasiera emanez, eta ondoren, 18:30ak aldera, kontzertuak eskainiko dituzte Joseba Barandiaran plazan. Urtean zehar egindako lana erakutsiko dute.

Larunbatean, aldiz, 10:30etan biolin taldeak, tailerra 0-3 eta 1, 2, 3 tailerak musika eskolako aretoan entzunaldia eskainiko dute 12:00ak aldera. Kontzertuak Joseba Barandiaran plazan izango dira eta 14:00ak aldera bukatuko da.



Musika Egunean pasa den urteko emanaldia.

ekitaldia eta aurtengo Musika Eguna. II

HERNANI ZERBITZU SOZIALAK

Oposizioa, hiru gizarte langile posturako

Deialdia zabaldu du Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak eta eskabidearen inprimakia eskuragarri dago 'www.hernani.eus' webgunean.

HERNANIKO Udaleko Zerbitzu Sozialak hiru gizarte langile lanposturako deialdia eta oinarriak argitaratu ditu. Erakundeke gizarte langile lanpostuen hiru plaza txanda irekian eta azterketa eta merezimendu bidezko lehiaketaren bidez beteko dira.

Deialdia eta oinarriak euskarri ofizialetan aurkitu dai-

tezke eta Hernaniko Udaleko web orrian argitaratuko dira. Parte hartzeko eskabideak Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak Erakundeke presidenteari zuzenduko zaizkio.

Eredu ofizial eta normalizatua aurkeztuko dira eskariak eta erakundearen bulegoetan emango da (Sandiusterrikaleko 1. zenbakia). Era bere-

an parte hartzeko eskabidearen inprimakia eskuragarri izango da Udalaren webgunean: www.hernani.eus.

Parte hartzeko eskabideak aurkezteko hogeita egun naturaleko epea izango da. Deialdiaren laburpenaren iragarria Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori. II

ASTIGARRAGA AZSTIGAZTE LEHIAKETA

Azstigazte lehiaketaren finala, gaur

'Ozlordo' eta 'Ryhnex' ezizena dute bi finalistek eta 18:00etan aurkeztu behar dituzte beraien lanak Astigarragako Udaleko Pleno aretoan.

2019KO AZSTIGAZTE lehiaketaren finalistak ezagutzen dira eta gaur aurkeztu beharko dituzte beraien lanak Astigarragako Udaleko Pleno aretoan. Ezagutzera eman dira zeintzuk diren bi finalistak 12-14 urteko mailan. Ozlordo eta Ryhnex dira beraien ezizenak

eta finaleko lanen ahozko aurkezpenak eta sari banaketa gaur, 18:00etan, egingo dira Pleno aretoan.

12 eta 14 urte bitartekoek Asztigazte lehiaketara lanak aurkezteko epea apirilaren izuteren eta oraingoan lanak sendia gaiaren ingurukoak izan

dira. Garapen lan bat egin dute, idatziz, eta idatziarekin lotura duen irudia, euskarri zurrunean, aurkeztu dute.

15 eta 18 urte bitartekoek, Murgiako Jauregia dute gaia, eta lan bera egin beharko dute. Azaroaren 13ra arte izango dute lanak aurkezteko epea. II

KRONIKA LAN ESKAINTZA

Opor egunetarako ordezkoko bila, Kronika inprimatzeko

Ez da esperientziarik behar eta ekainaren 21era arte bidali daitezke curriculumak.

KRONIKAK langile bat behar du Kronika inprimatzeko opor egunetan udaran zehar. Hilabeterako da eta euskara ongi menperatzea ez da baldintza beharrezkoa. Ez da esperientziarik behar baina bai inprimaketa lanak egiteko gaitasuna. Kotxeke karnta eta kotxea izatea beharrez-

koa da, baita inizatiba eta enpatia edukitzea ere. Lanaldia egunero bi ordu eta erdikoa izaten da. Ekainaren 21era arte bidali daitezke curriculumak kronika@kronika.eus helbide elektronikora edo Dobera Euskara Elkarte, Larramendi 11 behea, 20120 Hernani helbidera. II

HERNANI PRESOKAK

Kontzentrazioa gaur Zinkoenean

Gaur ostirala ekainak 7, kontzentrazioa burutuko da Zinkoenean arratsaldeko 20:00etan, presoen eskubideen alde. II

HERNANI KONTRAKANTXA

'Napardeath' pelikula, pintxo-potearekin

Gaur Napardeath pelikula estreinatuko da Gaztetxean, 20:30etan, pintxo poteoaren ondoren. II

IRAGARKI MERKEAK

Almazena salgai Hernaniko Lizeaga auzoan (Peña Otaño atzean). 40 m², 4 m altuera, entreplanta, trastelekua eta bulegoa jarrita. WC ere bai. **Deitu: 680 136 066**

LANDANET enpresak KOMERTZIALAK behar ditu. Baldintza ezin hobek: lan-kontratua, soldata finkoa, komisio altuak hilero eta formazioa enpresaren kontu. **Bidali cv info@landanet.net edo deitu 943318606.**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

HERNANIARRA BAZARA
URTE OSOAN ZEHAR

**ERREMONTA
GALARRETAN**

8€
SARRERA

%60ko beherapena
izango duzu urte osoan zehar
NAN aurkeztuz

BERRIA ERREMONTA TXAPELKETA

ORIAMENDI 2010